



DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2016

OSASUNA

1. Osasun-arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzak	2
2. Espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi estrategiako biozientziak-osasuna lehenetasunari lotutako ikerketa eta garapen-proiektuetarako laguntzak	3
3. Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak mantentzeko laguntzak	4
4. Droga-mendekotasunen tokiko planei atxikitako droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko proiektuak –onartutakoak edo lantzen ari direnak egiteko laguntzak	5
5. Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko proiektuak egiteko eta adikzioen esparruan ohitura osasungarriak sustatzeko laguntzak	6
6. Irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzako diru-laguntzak; Gib/Hiesa, c hepatitis eta sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko eta kontrolatzeko zereginetan aritu eta euren jardura Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen dutenentzat	7
7. EAE-n gaixoen kolektiboen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egiten dituzten eta irabazi-asmorik ez duten ekimen sozialeko elkarteentzako laguntzak	8
8. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan jardura fisikoa sustatzeko diru-laguntzak	9
9. Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteei, ikasle-elkarteei eta unibertsitatez kanpoko ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibei zuzendutako laguntzak, ikasleen artean mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak garatzekoak	10
10. Osasun arloko profesionalen prestakuntzarako bekak eta laguntzak 2016	11
11. Laguntzak osasunaren esparruan diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarteentzat, osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko erakunde zientifikoentzat eta osasun alorreko profesionalen elkargo ofizialarentzat	13
12. Gib/Hiesaren eta sexutransmisiozko infekzioen prebentzioa	15
13. Etxez etxeko laguntzarako udal zerbitzuaren erabiltzaileen artean sendagaien erabilera hobetzeko programa	16
14. Prestazio farmazeutikoa eta atzerriko botikak	17
15. Metadona tratamendua opiazeon adikzioa duten pertsonetan	18
16. Tratamendu dietoterapiko konplexu eta etxeko nutrizio enterala	19
17. Osasun-laguntza behar izateagatik egindako gastuak itzultzea	21
18. Prestazio ortoprotesikoak	22
19. Preskribatutako tratamendu medikoak ez uzteko laguntza 2015-2016	23



1.- Izenburua

Osasun-arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko apirilaren 19koa, Osasuneko sailburuarena, 2016. urtean hastekoak diren osasun-arloko ikerketa-proiektuei laguntzak emateko deialdia egiteko dena (85 zk.ko EHAA, 2016ko maiatzaren 6koa).

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da osasun-zientzien arloan 2016an abian jarritako osasun-arloko ikerketa-proiektuak finantzatzea, betiere objektibotasun-, norgehiagoka- eta publikotasun-printzipioei jarraikiz.

Ikerketa-proiektuetarako ematen diren laguntzak berehalako eta zuzeneko tresna dira osasun-ikerketa finantzatzeko. Ikerketa-proiektuek Osasun Planarekin eduki behar dute erlazioa (Osakidetzarako interesa), eta kanpo-ebaluazioa ezartzen zaie.

Ikertzaile berriak hartzea, osasun-profesionalen ikerkuntza-jarduera eta ikerketa-ildo berriak zabaltzea sustatzen du deialdiak, osasun-agintaritzaren plan estrategikoekin bat eginez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

139 eskaera jaso ziren, eta 23 proiektu (% 16,55) lagundu dira diruz, 69 ezin izan dira diruz lagundu ez zelako heltzen aurrekontua eta 46, berriz, diruz laguntzeko modukotzat hartzeko nahikoa puntuazioa ez duelako lortu. Horrez gain, proiektu bat ez da onartu, epean ez delako sinatu eskaera.

Aurrekontu programan 15 proiektu laguntzea zegoen aurreikusita, eta, beraz, adierazle horren % 153,3 bete da.

Halaber, diru-laguntzaren % 23,91 garapen bidean dauden taldeentzat bideratu da eta % 59,81, berriz, emakume ikertzailek gidatutako proiektuak diruz laguntzeko.



1.- Izenburua

Espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi estrategiako biozientziak-osasuna lehentasunari lotutako ikerketa eta garapen-proiektuetarako laguntzak

2.- Araua

Agindua, 2016ko uztailaren 12koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi estrategiako biozientziak-osasuna lehentasunari lotutako ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzen deialdia egiten baita.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak.

Programa honen helburua da espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi estrategiako biozientziak-osasuna lehentasunari lotutako ikerketa- eta garapen-proiektuak finantzatzea, publikotasun-, gardentasun-, lehia-, objektibotasun- eta berdintasun-printzipioen eta diskriminaziorik ezeko printzipioaren arabera.

Deialdi honen xedea honakoa da: osasun profesionalen ikerkuntza jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan estrategiko gisa identifikatutako eremuetako bestelako eragile beharrezkoekiko lankidetzatza sustatzea, osasun sistema RIS3 Euskadi estrategiaren helburu orokorrak lortzeko gako bat izanik.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

44 eskaera jaso ziren, eta 12 proiektu (% 27,27) lagundu dira diruz, 17 ezin izan dira diruz lagundu ez zelako heltzen aurrekontua eta 13, berriz, Balorazio batzordearen hautapen betekizunak ez gainditzeagatik. Horrez gain, proiektu 2 ez dira onartu, diruz laguntzeko moduko proiektuen betekizunak ez betetzeagatik.

Osasun Saileko diru-laguntzen 2016ko plan estrategikoan diruz laguntzeko moduko proiektuak 12 ziren, ondorenez, adierazle hori bete da.



1.- Izenburua

Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak mantentzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko irailaren 20ko Agindua, Osasuneko sailburuarena. Horren bidez diru-laguntzak deitu dira adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko, arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak gauzatzeko, eta jokabide osasungarriak bultzatzeko jardun-eremu horietan talde teknikoak sortu eta mantendu daitezzen 2016ko ekitaldian

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak.

Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko laguntzak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu-programaren neurriak:

- 7. helburua: Sektoreen arteko eta erakundeen arteko koordinazioa.
- 2. ekintza: Koordinazioa tokiko erakundeekin. Laguntza ematea, komunitateko prebentzioko talde teknikoak mantentzeko.
- Neurria: 36

Lortutako emaitzak oso onak dira:

- TALDE TEKNIKOAK MANTENTZEKO LAGUNTZAK:
34 TOKI-ERAKUNDE:
 - Arabako 4 udal eta Arabako Foru Aldundia
 - Gipuzkoako 10 udal/mankomunitate
 - Bizkaiko 20 udal/mankomunitate

Kapitulu honen diru-zuzkidura 1.172.985 eurokoa da. Emandako laguntza, guztira, eskabide guztien aurrekontuan jasotakoaren % 39,16 da.



1.- Izenburua

Droga-mendekotasunen tokiko planei atxikitako droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko proiektuak –onartutakoak edo lantzen ari direnak egiteko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko irailaren 20ko Agindua, Osasuneko sailburuarena. Horren bidez diru-laguntzak deitu dira adikzioen prebentzio komunitariorako programak garatzeko, arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak gauzatzeko, eta jokabide osasungarriak bultzatzeko jardun-eremu horietan talde teknikoak sortu eta mantendu daitezzen 2016ko ekitaldian

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak.

Xedea da arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko proiektuak eta esku-hartzeak egiteko 2016an toki erakundeei emango zaizkien diru-laguntzak arautzea. Proiektu eta esku-hartze horiek droga-mendekotasunen tokiko planetan egon behar dute onartuta edo lantzeko prozesuan; Udalek banaka edo mankomunatuta garatu behar dituzte, eta ekintza egituratu eta koordinatuen multzo ordenatu bat osatu behar dute.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu-programaren neurriak:

- 2. helburua: Ekimen sozialei eta udalei laguntzea mendekotasunen prebentzioan eta kalteen murrizketan
- 1. ekintza: Tokiko erakundeei laguntzea, mendekotasunak prebenitzeko eta horiek eragiten dituzten arriskuak gutxitzeko eta jarduera fisikoa sustatzeko programak garatu ditzaten.
- Adierazlea: Mendekotasunak, arriskuak eta kalteak prebenitzeko proiektuak dituzten toki-erakundeen kopurua. Neurria: 45

Lortutako emaitzak oso onak dira: 44 toki-erakundek egindako 44 programa (200 proiektu osatutakoa) lagundu dira diruz; programa horietarako, 2.862.536 euroko laguntzak eskatu dira guztira:

- o Arabako 3 udal
- o Gipuzkoako 17 udal/mankomunitate
- o Bizkaiko 24 udal/mankomunitate

Kapitulu honetako diru-zuzkidura 561.215 eurokoa da. Emandako laguntza, guztira, eskabideen aurrekontuan jasotakoaren % 18,61 da.



1.- Izenburua

Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko proiektuak egiteko eta adikzioen esparruan ohitura osasungarriak sustatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko irailaren 20koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez laguntza ekonomikoak emateko deialdia egiten baita talde teknikoak sortu eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitariorako programak garatzeko, arriskuak eta kalteak prebenitu eta gutxitzeko, bai eta 2016ko ekitaldian jarduera-eremu hauetan ohitura osasungarriak sustatzeko ere.

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak.

Laguntza horien onuradun izan daitezke 2016an droga-mendekotasunen arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak gauzatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu-programaren neurriak:

- 2. helburua: Honako programa hauek garatzea: adikzioak prebenitzeko, ohitura osasungarriak sustatzeko eta adikzioei lotutako arrisku eta kalteak gutxitzeko programak zein laguntza- eta gizarteratze-programak.
- 2. ekintza: Gizarte-entitateei laguntzak ematea honako programa hauek garatzeko: adikzioak prebenitzeko eta horiek eragiten dituzten kalteak gutxitzeko programak zein bizimodu eta ohitura osasungarriak sustatzeko programak.
- Adierazlea: Laguntzak emateko Agindu bat egitea eta gauzatzea, mendekotasunak prebenitzeko eta mendekotasun horiei lotutako kalteak murrizteko egindako proiektuak barruan hartzen dituenak.
- Adierazlea: Mendekotasunak prebenitzeko eta kalteak murrizteko proiektuak dituzten gizarte-entitateen kopurua. Neurria: 44.

2016ko laguntza-programa efikaza izan da helburu hauek lortzeko: 34 entitatek hartu dute parte, 69 proiektuekin; horietatik, 33 izan dira onuradun, 66 proiektuekin. Entitate batzuek proiektu bat baino gehiago aurkeztu dituzte. Aurkeztutako proiektuen kostua 3.922.019 € da, eta, guztira, 2.034.685 € eskatu dira proiektu horietarako. 3 proiektuk ez dute jaso diru-laguntzarik:

- Proiektu bat kanpoan geratu da, laguntzen deialdiko baldintzak betetzen ez dituelako.
- Proiektu bat kanpoan geratu da, aurrekontu-partida agortu egin delako.
- Elkartek batek atzera egin du bere eskaeran.

Kapitulu honetako diru-zuzkidura 881.413 €-koa izan zen. Emandako laguntza, guztira, eskabide guztien aurrekontuan jasotakoaren % 22,47 da.



1.- Izenburua

Irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzako diru-laguntzak; Gib/Hiesa, c hepatitis a eta sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko eta kontrolatzeko zereginetan aritu eta euren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen dutenentzat

2.- Araua

Agindua, 2016ko uztailaren 19koa, Osasun sailburuarena; honen bidez, laguntzetarako deia egiten zaie EAEn GIB/hiesa, C hepatitis a eta sexu bidez transmititzen diren infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko eta ekimen sozialeko erakundeei.

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Bai irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek garatzen dituzten jarduerak, bai Herri Administrazioek martxan jartzen dituztenak ezinbestekoak dira infekzio horren transmisioa prebenitzeko ahalegin bateratu horretan laguntzeko eta birus eramaileen egoera hobetzeko.

Hona hemen laguntza horien jomugan daudenak:

- a) Gizonekin sexua daukaten gizonei zuzendutako proiektuak, kontuan hartuta zenbaterainoko garrantzi epidemiologikoa duen giza-talde horrek gaur egun.
- b) GIBari dagokionez egoera zaurgarrian dauden beste giza-talde batzuei zuzendutako proiektuak; kasurako, etorkinak, drogak bide parenteraletik hartzen dituztenak eta prostituzioan lan egiten dutenak.
- c) GIB birusaren gaixotasunaren diagnostiko goiztiarra egiteko sortutako proiektuak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu programan aurreikusitakoak (16 erakunde) zenbateraino bete diren aztertu da eta bete ez ezik gainditu ere egin direla ikusi da, gutxigatik izan bada ere. Orotara 18 erakunderi eta 37 proiektuari eman zaio 300.000,00 €-ko diru-laguntza.



1.- Izenburua

EAE-n gaixoen kolektiboen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egiten dituzten eta irabazi-asmorik ez duten ekimen sozialeko elkarteentzako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko uztailaren 19koa, Osasuneko sailburuarena; agindu honen bidez, EAEn gaixoen eta haien familien kolektiboen bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egiten dituzten eta irabazi-asmorik ez duten gizarte-ekimeneko entitateei zuzendutako laguntzen deialdia egiten da. (2016ko abuztuaren 4ko EHAA, 148 zk.).

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Gaixotasunen bat duten pertsona-kolektiboen eta haien familien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak finantzatzen laguntzea da diru-laguntzen lerro hauek duten helburu nagusia.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko helburuek adierazle hauek hartu zituzten kontuan programaren ebaluazioa egiteko: 60 erakunde onuradun eta diruz lagundutako 90 proiektu. Lortutako zenbakiak, aldiz, hauek izan ziren: 64 erakunde onuradun eta diruz lagundutako 112 proiektu. Hortaz, aurrekontu-programaren aurreikuspenetako betetze-maila gainditu zen. Gainera, deialdiaren % 100 esleitu zen, 300.000 €ko zenbatekoarekin.

Hainbat patologia-mota dituzten paziente eta familiei zuzendutako jardueretarako diru-laguntzak eman dira: minbizia, diabetesa, buru- eta portaera-nahasmenduak, nerbio-sistemaren eta sistema osteomuskularraren nahasmendua, elikadura-nahasmenduak, etab.

Honako hauek izan dira diruz lagundutako jarduera nagusiak: gaixoentzako eta familiartekoentzako autolaguntza- eta babes-taldeak; laguntza psikologiko eta soziala, familia-unitateko pertsona guzien bizi-kalitatea handitzeko; talde-terapiak; pazienteentzako eta familiartekoentzako prestakuntza-hitzaldiak; gaixotasunen informazio eta sentsibilizazioa; informazio-gida espezifikoaren prestaketa.



1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan jarduera fisikoa sustatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko uztailaren 13koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez diru-laguntzak ematea arautzen baita, 2016ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan jarduera fisikoa sustatzeko. (2016eko abuztuaren 4ko EHAA, 148 zk.)

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza hauen helburu nagusia da, alde batetik, osasuna indartzea toki-eremuko jardueretan eta osasun-arlokoak ez diren gainerako lan-eremuetan; bestetik, biztanleek oro har eta sedentarioenak diren biztanleek bereziki jarduera fisikoarekiko duten jarrerak hobetze aldera toki-erakundeek egiten dituzten programa eta jarduerak indartzea, horiek finantzatzuz, eta, bestetik, udalerrietan mugikortasun aktiboa sustatzea.

Deialdi honetan, lehenetsuna eman zaie hirietan eta hiri-inguruetan ibilbideak edo pasealekuak egokitzeko eta dinamizatzeko programak eta esku-hartzeak, herritar guztiei zuzenduak; ibilbide horiek seguruak izango dira eta behar bezala seinaleztatuta egongo dira, ohiko joan-etorrietan mugikortasun aktiboa errazteko eta aisialdi aktiboa sustatzeko eta esku-hartze komunitarioko tokiko sare edo talde bat, diziplina anitzekoa eta sektoreartekoa, sortzeko beharrezkoak diren jarduerak. Tokian-tokian jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa prebenitzeko ekintzak eta estrategiak lehenetsi, planifikatu eta garatuko ditu sare horrek partaidetzazko prozesuen bidez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016eko helburuek adierazle hauek hartu zituzten kontuan programaren ebaluazioa egiteko diruz lagundutako 50 proiektu. Lortutako zenbakiak, aldiz, hauek izan ziren diruz lagundutako 120 proiektu. Hortaz, aurrekontu-programaren aurreikuspenetako betetze-maila gainditu zen, proiektuei dagokienez. Gainera, deialdiaren % 100 esleitu zen, 292.000 €ko zenbatekoarekin.

Honako hauek izan dira diruz lagundutako jarduera nagusiak:

- Ardatzak edo hiri-ibilbideak sortu, egokitu eta seinaleztatzea.
- Leku horiek erabiltzeko programak dinamizatzea.
- Jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa prebenitzeko ekintzak eta estrategiak koordinatzen dituzten tokiko sareak sortzea.



1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteei, ikasle-elkarteei eta unibertsitatez kanpoko ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibei zuzendutako laguntzak, ikasleen artean mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak garatzekoak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko uztailaren 19koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez elkarte eta kooperatibei zuzendutako laguntzetarako deialdia egiten baita, 2016-2017 ikasturtean zehar EAEko ikasleen mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak gara ditzaten (EHAA, 148. zk., 20016eko abuztuaren 4koa)

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak.

Diru-laguntza honen helburua da toki-eremuko eta osasun-arlokoak ez diren gainerako eremuetako jarduketetan osasuna indartzea, eta, horretarako, EAEko ikastetxeetan eskola-bideak sortzea.

Laguntza hauen helburua da 2016-2017 ikasturtean zehar EAEko ikasleen guraso-elkartek, ikasle-elkartek eta irakaskuntza-kooperatibak finantzatzea, eskola-bideak sortu eta dinamiza ditzaten. Ikasleak kaleetan segurtasunez eta autonomiaz mugitu ahal izatea eta eremu publikoaren erabilera eta gozamina berreskuratzea da eskola-bideei buruzko proiektuen xedea. Gainera, eskola-giroan mugikortasun aktiboa sustatzea tresna eraginkor bat izan daiteke txiki-txikitatik herritarrak kontzientziatzeko jarduera fisikoak osasunari dakarkion onuraz.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza hauek urte anitzekoak dira, eta ikasturtearen iraupena dute, 2017eko ekainean bukatzen dira; beraz, ikastetxeek data horretarako egiaztatu beharko dute burutu dutela aurkeztutako proiektua.

2016ean, eskaerak aurkezteko epea zabaldu zen (43 eskari), horiei buruzko esleipen-ebazpena eman zen (29ri eman zitzaien laguntza), eta esleitutako kopuruaren %70a ordaindu zen (65.800€).

Honako hauek izan dira diruz lagundutako proiektu nagusiak:

- a) Proiektuaren dinamizazioa eta koordinazio teknikoa.
- b) Ikastetxearen inguruan zer mugikortasun dagoen aztertzea.
- c) Solasaldiak, tailerrak edo komunikazio-kanpainak antolatzea.
- d) Behar den materiala
- e) Ekimen honetara atxikitzen direnen ikasleentzako pizgarriak.
- f) Mugikortasun aktiboa bultzatzen duten ikastetxeetako espazioak egokitzea.

2016an 2015-2016 ikasturteko deialdia bukatu da, justifikazioak aurkeztu eta esleitutako %30 ordaindu ondoren (28.200€).



1.- Izenburua

Osasun arloko profesionalen prestakuntzarako bekak eta laguntzak 2016

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko maiatzaren 31koa, Osasuneko sailburuarena, osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak emateko deialdia egiteko dena.

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak.

Deialdiaren helburu nagusia da osasun-zerbitzuen kalitate hobea sustatzea, esparru horretako profesionalen prestakuntzan oinarrituz.

Bekak eta laguntzak osasun arloko profesionalen kolektiboari bideratuta daude, bi modalitate hauetan:

- Atzerriko zentroetan ikastaroak eta egonaldiak egiteko bekak eta laguntzak.
- Osasun-kudeaketako gaitasuna eskuratzeko Estatuko zentroetan egindako prestakuntza-jardueretarako bekak eta laguntzak. Modalitate honetan, osasun-kudeaketarekin lotutako prestakuntza-jarduera hauek lagunduko dira diruz: osasun- eta ospitale-kostuen kontrola eta kudeaketa, marketina, giza baliabideak, osasun-zerbitzuen produktibitatea eta plangintza, eta kalitatearen kontrola, gizarte- eta osasun-arreta, osasun-langileen arriskuak, osasun-erakunde motak, osasun-kudeaketaren politika, plangintza estrategikoa eta kudeaketa horren tratamendu informatikoa.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko ekitaldian, deialdiaren zenbatekoa 108.010 €koa izan zen. Deialdia ebatzi ostean, aurrekontuko zenbateko osoaren % 80,37 esleitu zen.

Guztira, emandako banakako beken kopurua aurreikusitakoa baino handiagoa izan da (25, eta ez 20); dena den, atzerriko egonaldiek behera egin dute (5 izan dira, 10 aurreikusi arren) eta Estatukoek gora egin dute, 20 eman baitziren, 10 aurreikusi arren.

Atzerriko zentroetan ikastaroak eta egonaldiak egiteko 5 beka edo laguntza eman ziren, eta 25 osasun-kudeaketaren eta osasun publikoaren arloan eskumenak bereganatzeko prestakuntza-jardueretan, Estatuko zentroetan.

Honako hau da lurraldearen eta urtearen araberako banaketa:

Lurraldea	Onuradun kop.	2016ko ekitaldia	2017ko ekitaldia	Guztira
Araba	4	14.439,00	4.813,00	19.252,00
Bizkaia	16	34.008,75	11.336,25	45.345,00
Gipuzkoa	5	16.662,00	5.554,00	22.216,00
Guztira	25	65.109,75	21.703,25	86.813,00



Jasotako 52 eskaeren artean, 8 ezetsi egin ziren, jarduera 2016an ez abiarazi izanagatik eta laguntzaren xede ziren jarduerak deialdian zehaztutako eremuan ez egoteagatik, batez ere.

Honako hauek ziren deialdiaren helburuak:

- Atzerriko zentroetan egonaldiak eta ikastaroak egiteko beken eta laguntzen kopurua (10)
- Estatuko zentroetan egindako osasun-kudeaketa arloko eskumenak bereganatzeko beken eta laguntzen kopurua (10)
- Eraginkortasunari dagokionez balorazio altua -% 75etik gorakoa- lortu duten prestakuntza-jardueren kopurua

Hirugarren adierazlea gogobetetasun-inkesta baten bidez neurtzen da. Bekaren edo laguntzaren onuradunak inkesta hori bete eta Osasun Sailera bidali behar du, prestakuntza-jarduera bete izanaren ziurtagiriarekin batera.

Deialdiak zenbait urtetarako izaera duenez (diruz lagundutako prestakuntza-jarduera 2016ko ekitaldian abiarazi behar da, baina 2017an amai daiteke), eta 2016ko deialdia berandu ebatzi zela kontuan hartuta, jasotako azken ziurtagiriak ez dira oraindik nahikoak aurreikusitako maila lortu den ala ez frogatzeko. Edonola ere, eta arestian aipatutako galdetegiak aztertu ostean, horien % 100ek eraginkortasunaren balorazio altua egiten dutela hauteman da.

Beste bi adierazleei dagokienez, lortutako emaitzen artean, atzerriko zentroetan ikastaroak eta egonaldiak egiteko 5 beka eta laguntza ditugu, baita Estatuko zentroetan egindako osasun-kudeaketa arloko eskumenak bereganatzeko prestakuntza-jardueretarako 25 beka eta laguntza ere.

Helburuak bere osotasunean bete ez badira ere, egindako aldaketei esker eskaerak eta emakidak areagotu eta hobetu egin direla uste dugu. Hori dela-eta, beken eta laguntzen programa hau helburu horiek lortzeko modurik eraginkorrena dela uste dugu, eta, azken finean, horrek herritarrei eskainitako osasun-arreta hobetzen laguntzen du.



1.- Izenburua

Laguntzak osasunaren esparruan diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarteentzat, osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko erakunde zientifikoentzat eta osasun alorreko profesionalen elkargo ofizialarentzat

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko maiatzaren 24koa, Osasuneko sailburuarena, honako erakunde hauei laguntzak emateko deialdia egitekoa: osasunaren esparruan diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarteak, osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko erakunde zientifikoak, eta osasun-alorreko profesionalen elkargo ofizialak. Laguntzen xedea izango da erakunde horien funtzionamendua eta langileen etengabeko prestakuntzarako jardueren antolaketa. (EHAA, 114 zk., 2016ko ekainaren 16koa).

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak.

Programaren helburua da honako hauetatik eratorritako gastuak finantzatzeko laguntzak ematea:

- Osasun arloko profesionali bideratutako jarduera zientifikoaren hedapenerako eta prestakuntzarako jardueren antolakuntza, bi modalitate hauetan:
 - a) Bilkura zientifikoak antolatzea, hau da, kongresu, sinposium, jardunaldi, mintegi eta hitzaldiak.
 - b) 100 ordu baino gutxiagoko ikastaroak eta tailerrak antolatzea.
- Beren eginkizuna osasun arloan garatzen duten elkarten, osasun arloko espezialitateetako erakunde zientifikoaren eta osasun arloko profesionalen elkargo ofizialen funtzionamendua, horiek irabazi-asmorik gabeak direnean, eta langileei prestakuntza eta eguneratze tekniko eskaintzen dietenean edo ikerketa sustatzen dutenean, honako bi modalitate hauetan:
 - a) Osasun arloan diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarteak, osasun arloko profesionalen elkargo ofizialak eta osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko erakunde zientifikoak sortzeko edo horien funtzionamendurako laguntzak.
 - b) Osasun-arloko aldizkako argitalpenetan laguntzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko ekitaldirako deialdiaren azken zenbatekoa 92.880 eurokoa izan zen.

Emandako zenbatekoaren eta lurraldearen araberrako banaketari dagokionez, honela geratu ziren laguntza-lerroak:

<i>Lurraldea</i>	<i>Ikastaroak</i>	<i>Bilerak</i>	<i>Erakundeak</i>	<i>Argitalpenak</i>	<i>Guztira</i>
Araba	9.569,00	0	704	1.436,00	11.709,00
Bizkaia	19.258,00	17.700,00	15.092,00	7.601,00	59.651,00
Gipuzkoa	12.437,00	2.150,00	3.782,00	2.872,00	21.241,00
Guztira	41.264,00	19.850,00	19.578,00	11.909,00	92.601,00



2016ko ekitaldirako aurreikusitako helburuen artean, 81 laguntza eman ziren, 55 ikastaroetarako, 10 bilera zientifikoetarako, 7 erakundeen eraketa edo funtzionamendurako, eta 9 osasun arloko argitalpenetarako.

Emaitzek aurreikuspen guztiak gainditzen dituzte. Guztira, honako hauek finantzatu ziren: 87 laguntza ikastaroetarako, 10 bileretarako, 6 erakundeentzat eta 10 argitalpenetarako.

Bestalde, 2016ko ekitaldian ezarritako adierazle berri guztiek aurreikusitako aurreikuspenak gainditu dituzte:

- Diru-laguntza jasotzen duten prestakuntza-jardueretan emandako eskola-orduen guztizko kopurua (>600 ordu)
- Diruz lagundutako prestakuntza jaso dutenen profesionalen kopurua (>3)
- Diru-laguntza jaso duten bileretara joaten direnen kopurua (>2.500)
- Diruz lagundutako jardueren artean helburuei dagokienez Osasun Sailaren lehentasunezko arloetan kointzidentzia maila handia edo ertaina lortu dutenen ehunekoa (>% 75).



1.- Izenburua

Gib/Hiesaren eta sexutransmisiozko infekzioen prebentzioa

2.- Araua

1995eko maiatzaren 12an, Osasun Sailak Farmazialarien Elkarte Ofizialarekin lankidetzahitzarmena sinatu zuen GIB/HIESaren eta sexu transmisiozko infekzioen prebentzioarako. Gaur egun, hitzarmenak indarrean jarraitzen du.

2009ko otsailean, lankidetzahitzarmenaren eranskina sinatu zen. Hitzarmena 2017ra luzatu da.

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak.

2009an GIBaren test negatibo baheketa lasterraren proba pilotoa burutu zen EAeko farmazia bulegoetan. Eraitza positiboak lortu ziren eta 2016era luzatu zen hitzarmena.

Programaren helburua da GIBaren test negatibo behaketa lasterra populaziora helaraztea. GIBaren baheketa test azkarra da GIBak eragindako infekzioaren diagnostikoaren eremuan berrikuntza azpimarragarrietakoa. Teknika oso erraza eta sinplea da, fidagarritasuna %100 ingurukoa da (sentsibilitatea %100, espezifitatea %99,7); beti ere, praktika arriskutsuetatik (leio aldia) gutxienez hiru hilabete igaro badira.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016an, EAeko 50 farmazia bulegok parte hartu dute (Araban 7, Gipuzkoan 16 eta Bizkaian 27 farmazia izan dira). 2.668 test burutu dira, pasa den urtean baino 119 test gutxiago.

Osasun Sailarentzat 51.827,37 euroko kostua izan du.

Prebentzioaren alorrean proiektu hau ezinbestekoa da osasun prestazioan ekonomikoki aurreztea eragiten baitu.



1.- Izenburua

Etkez etxeko laguntzarako udal zerbitzuaren erabiltzaileen artean sendagaien erabilera hobetzeko programa

2.- Araua

2009ko otsailaren 25ean sinatu zen lankidetzaren hitzarmena Osasun Sailaren eta EAeko Farmazialarien Elkartearen artean, etkez etxeko laguntzarako udal zerbitzuaren erabiltzaileen artean sendagaien erabilera hobetzeko.

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak.

Programaren helburua da sendagaien erabilera hobetzeko baldintzak ezartzea Osasun Saila eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiako Farmazialari Elkartearen arteko lankidetzari esker. Horretarako, dosifikatze sistema pertsonalak prestatuko dira farmazia bulegoetan. Programa hau sendagaien erabileran arazoak dituzten eta beraien etxeetan udal zerbitzuetako etkez etxeko laguntza jasotzen duten erabiltzaile autonomo zein menpekoei zuzenduta dago.

Helburu orokorra: udal zerbitzuetako etkez etxeko laguntza jasotzen duten erabiltzaileen botiken erabilera optimizatzea, segurtasuna eta eraginkortasuna hobetze aldera.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016an, 336 farmazia bulegok eta batezbeste hilerok 771 pazienteek parte hartu dute programan. Osasun Sailak programatik 288.416,96 euro ordaindu ditu.

Programaren inplementazioak garrantzi handia du adineko pertsonen artean, gaixo kroniko eta polimedikatuak baitira. Programak pazienteek jasotzen duten arretaren kalitatea hobetzen du, segurtasuna areagotuz eta botiken kontrako efektuak eragotziz.



1.- Izenburua

Prestazio farmazeutikoa eta atzerriko botikak

2.- Araua

1/2015 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 24koa, medikamentu eta osasun produktuen bermeei eta arrazoizko erabilerari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.

1015/2009 Errege Dekretua, ekainaren 19koa, egoera berezietan beharrezkoak diren medikamentuen eskuragarritasuna arautzen duena.

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak.

Programa honen helburua da estaldura ematea:

- Errezeta medikoaren bidez Osasun Sistema Publikoko eskaintza farmazeutikoko beharrei.
- Paziente anbulatorioen atzerriko medikamentuen beharrei. Atzerriko medikamentuek bere barnean biltzen ditu Estatu Espainiarrean erregistratutarik edo komertzializaturik ez dauden botikak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016an, errezeta bidez preskribatutako medikamentu, efektu eta osagarri, bakuna eta formulen gastua 504.178.261,31 eurokoa izan zen.

Atzerriko botiken kostua, berriz, 356.972,51 eurokoa izan zen, aurrekontuan ezarritakoa baino euro 48.527,49 gutxiago.

Errezeta bidezko eskaintza farmazeutikoa Osasun Sistema Publikoaren ezinbesteko oinarrietakoa da. Era berean, programa honek eragin sozial handia duenez, aldi oro, pazienteen beharrei egokitzea eskatzen du.



1.- Izenburua

Metadona tratamendua opiazeon adikzioa duten pertsonetan

2.- Araua

1995eko abenduaren 22an sinatu zen Osasun Sailaren eta Euskadiko Farmazilarien Elkarteekin lankidetzaren hitzarmena.

Bi aldeek adostasunez erabaki dute programa 1996. urtetik gaur arte, urtero, programa luzatzea, eta, azken urte honetan ere, 2016era arte luzatu da.

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak.

Programaren helburu orokorra da metadona behar duten droga erabiltzailei, GIB/HIESa dutenei zein ez dutenei, arretoa egokiago bat eskaintzea.

Programa honen bidez Ospitaletik Kanpoko Osasun Mentaleko opiazeoen adikzioagatiko desintoxikazio programari laguntza ematen zaio.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

EAEko farmazia bulegoak funtsezkoak dira sare publikotik ematen den eskaintza osatzeko orduan. EAEko programa honen ezarpena eredu da beste erkidegoentzat bai programan parte hartzen duten profesionalen erakutsitako harrera beroagatik (mediku eta farmazialariak) baita erabiltzaileen erantzunagatik ere.

2016an, 270 farmazia bulegok parte hartu dute programan. Batezbeste, 1.075 paziente igaro dira farmazietatik eta 739.542,08 euroko kostua izan du.



1.- Izenburua

Tratamendu dietoterapiko konplexu eta etxeko nutrizio enterala

2.- Araua

Irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretua, Osasun Sistema Nazionaleko ohiko zerbitzuen zorroa eta berau eguneratzeko prozedura ezarri duena.

Irailaren 24ko 1205/2010 Errege Dekretua, mediku-erabilera berezietarako elikagai dietetikoak Osasun Sistema Nazionaleko produktu dietetikoaren eskaintzan txertatzeko oinarriak eta finantzaziorako gehieneko zenbatekoak ezartzeko oinarriak finkatzen dituena.

SSI/2958/2010 Agindua, azaroaren 16koa, mediku-erabilera berezietarako elikagai dietetikoak Osasun Sistema Nazionaleko produktu dietetikoaren eskaintzan txertatzeko eta finantzaziorako gehieneko zenbatekoak aplikatzeko prozedura finkatzen dituena.

2008ko apirilaren 21eko ebazpena, Osasun Sailbuorordearena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan dietoterapikoak dispentsatzeko argibideak.

SSI/2366/2012 Agindua, urriaren 30ekoa, produktu dietetikoekiko prestazioaren fakturazioko faktore komuna ezartzen duena.

Hitzarmenaren luzapena sinatu da 2017.urterako.

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak.

Produktu dietetikoaren eskaintza Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzuen zorroan finkatzen da. Programa honen helburua da produktu hauen dispentsazioa erraztea. Horretarako, programaren bidez gaixotasun metaboliko konplexuak dituzten gaixoei tratamendu dietoterapikoa eskaintzen zaie, eta etxeko nutrizio enterala ohiko elikagaiekin elikatu ezin diren eta beraien etxeetan edo egoitzetan dauden pazienteei.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Produktu hauen dispentsazio baldintzak 2001eko apirilean sinatutako EAeko Farmazia Bulegoen bitartez bideratzen den prestazio farmazeutikorako eta Osasun Sailarekiko lankidetzaren bitartez baldintzak finkatzen dituen hitzarmenean jasotzen da.

Alabaina, 2012ko urriaren 30eko SSI/2366/2012 Aginduak produktu dietetikoekiko prestazioaren fakturazioko faktore komuna ezartzen duenak, eskaintzako zenbatekoari fakturazio faktore komuna aplikatzen dio produktuaren fakturazio zenbatekoa ezartzerako orduan, hitzarmenean finkaturikoa



bertan behera utziz. Osasun Sailak eskaintzaren barnean dauden produktuak, beraz, fakturazio zenbateko horren arabera ordaintzen ditu.

2016ean, 182.014 ontzi kontsumitu dira eta prestazio honen zenbatekoa 17.158.395,13 eurokoa izan da.



1.- Izenburua

Osasun-laguntza behar izateagatik egindako gastuak itzultzea

2.- Araua

1030/2006 Errege Dekretua, irailaren 15ekoa. Bi gauza ezartzen ditu: Osasun Sistema Nazionaleko ohiko zerbitzuen zorroa; eta barau eguneratzeko prozedura.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak.

Badira gaixo batzuk, laguntza-sare publikoko osasun-zerbitzuak eskuratu ezin izan dituztenak, zentzuzko arrazoi batzuk direla-eta, hala nola, hil ala bizi berehala erantzun beharra edo zerbitzu publikoak dena delako beharrezko laguntza hori ez edukitzea; gastuak itzultzeko programaren helburua, bada, gaixo horiei diru-ordaina ematea da, bidezkoa baita.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Egindako gastuen itzulera eskatuz gure aseguratuak 2016an aurkeztu dituzten eskabide guztiak aztertu eta ebatzi ditugu.

Zehatz-mehatz, gure aseguratuak, 2016an, gastuak itzultzeko 4.634 eskabide aurkeztu zituzten; eta, aztertu ondoren, % 96,40 ari baietz erantzun diogu (hau da, 4.467 eskabideri).



1.- Izenburua

Prestazio ortoprotesikoak

2.- Araua

Urtarrilaren 22ko 9/97 Dekretua (97-2-12 EHAA)

2000ko urriaren 10eko Agindua (01-01-16 EHAA)

2007ko martxoaren 29ko Agindua (07-07-30 EHAA)

Lan-prozedura normalizatuak, protokolo klinikoak eta gidalerroak

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak.

Hainbat prestazio-eskari egon da, eta programa honen helburu nagusia eskari horiei erantzutea da, gastuak itzuliz edo zuzenean ordainduz. Horretarako, material ortoprotesikorako indarrean dagoen katalogoan begiratuko dugu, eta izan badiren lan-prozedurak, protokoloak eta berariazko artezpideak beteko ditugu.

Eta horrela, gainera, irailaren 15eko 1.03/2006 Errege Dekretuko VI. eranskinean jasotakoa ere bete dugu (hor dago prestazio ortoprotesikoen zerbitzuen poltsa).

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Ezintasun fisiko batzuk bereziki garrantzitsuak dira osasunerako eta gizartean normal bizitzeko; bada, programa hau gaixo horien oinarritzko zenbait premiei erantzuteko da.

Programaren oinarrian gaixoen integrazio soziala eta autonomia pertsonala daude, eta erabiltzaileen premia kliniko-sanitarioei erantzuna emanez gauzatzen da.

2016an, guztira, 26.336 espediente tramitatu genuen. Bakoitzak, batez beste, 1,07 produktu bideratzen du, hau da, 28.167ren bat artikulua-eskariri erantzun genion.

Haietatik guztietatik, 122 erreklamazio izan genituen aurretiaz eginak edo bisatu-erakoak edo gastuak itzultzeko eskatuz; eta, haietatik, 113 aldekoak izan ziren.



1.- Izenburua

Preskribatutako tratamendu medikoak ez uzteko laguntza 2015-2016

2.- Araua

447/2013 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzeko (EHAA 227. zk., 2013ko azaroaren 28a).

AGINDUA, 2015eko abenduaren 10ekoa, Osasuneko sailburuarena, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2015eko eta 2016ko laguntzak emateko deialdia egiten duena (EHAA 244. zk., 2015eko abenduaren 23a).

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak.

Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak, finantzaketa publikoa jaso dezaketenak, gaixotasun- eta behar-egoera objektiboan dauden pertsonak bete ditzaten erraztea du xedetzat dirulaguntza-programa honek.

Agindutako tratamendu mediko bat betetzeko orduan ordaindu behar izan dituzten zenbatekoak itzuliko dira -hala egin behar denetan-, betiere finantzaketa publikoa jaso dezaketen tratamendu farmakologikoei, produktu dietetikoei eta efektu eta osagarriei dagokienez.

Objektiboki gaixo eta premian dauden pertsonak, eta 447/2013 Dekretuko 3.1 artikuluan datozen baldintzak betetzen dituenek jaso ditzakete laguntza hauek.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Gutxi gorabehera, EAeko 500.000 herritar ditugu laguntzok eskatu-gai. Horietatik, ia 105.000 lagunek eskatu dute, eta %91ri baiezkoa erantzun zaio.

Datu horiek begi aurrean ditugula, garbi dago programa honek berebiziko eragin ona duela: Alde batetik, 100.000 lagun inguru dira, zuzen-zuzenean, gaixo eta premian egonik, Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoari heldu ahal izan diotenak; eta, beste alde batetik, agindutako tratamendu medikoa bertan behera uzteak okerreko beste ondoriorik ere izango luke, eta, horrela, haiek saihestea ere lortu da; ona, inondik inora ere, ez, soilik, ekonomiari begiratuta, baita beste irizpide batzuk kontuan hartuta ere, hala nola, ongizate soziala, bizikaltatea...

Azkenik, beste gauza bat ere aipatu beharra dago. Laguntza jasotzen dutenek ikusten dutenean laguntzok eraginkor kudeatzen direla, benetan ordaintzen zaizkiela, litekeena da jende gehiagok eskatzea.